



MENDI ASTEAK EMANDAKOAREKIN «POZIK»

Villabonako Aizkardi Elkarteak antolatutako 26. Mendi Astea amaitu berri da; balantze baikorra egin dute »4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2009-12-09

VILURTEA 1.848.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

XI. Nazioarteko Ziklo-Kros proba Sven Vanthourenhout-ek irabazi du

ASTEASU Jende ugari elkartu zen atzo munduko ziklo krosleri onenak gertutik gertura ikusteko

FABORITOA Sven Nys handia irabazlearen atzetik sailkatu zen, esprintean amore eman ondoren»



Amaiera ikusgarri batean Sven Vanthourenhout-ek faborito nagusia, Sven Nys, gainditu zuen, atzo Asteasun. ASIERIMAZ

PATXI ZABALETA
IDAZLEA

«Iradokizunak egitea da olerkiaren zeregin nagusia»

LEITZA 'Bizi!' izeneko olerki bilduma argitaratu du 6-7



1.500 pertsona izan dira Zerkausian.e.e.

Zerkausia
jendez lepo egon da Txuleta
Festa dela eta

TOLOSA Aurten otordu bat gehiago eskaini dute 2



**BERTSOLARI
TXAPELKETA NAGUSIA**

www.txapelketanagusia.eu




Abenduak 13, igandea 11:00ean
BEC - BARAKALDO

FINALA

ANDONI EGANJA SUSTRU COLINA AITOR MENDILUZE UNAI ITURRIAGA
AMETS ARZALLUS ION MARRA MAIALEN LUJANBARO AITOR SARRECI

Laguntzaileak:



Zerkausia jendez lepo egon da Txuletaren Festa dela eta

«%99,9ko asetasuna lortu dugu, oso kontentu gaude»

JOAQUIN ARRATIBEL ▶ Divinus Catering-eko arduraduna

Gastronomia » Aurten egun bat gehiago izan da Zerkausiko erretegiara joateko eta ondorioz, 300 pertsona gehiago bildu dira.

ERREDAKZIOA

Atzo bukatu zen Txuletaren Festa. Pasa den ostiraletik atzora arte 1.500 bat pertsonak bazkaldu edota afaldu dute Zerkausian eta antolatzaileak kontentu daude erakarrirako jende guztia ikusita. «Aur-

tengoan egun bat gehiago izan dugu, ostirala, hain justu, etaberez, iaz baino 300 pertsona gehiago izan ditugu Zerkausian», argitu du Joaquín Arratibelek, Divinus Catering-eko arduradunak, Zerkausiko otorduak zerbitzatzeaz arduratu den enpresa dena, hain zuzen. Arratibel harro dago egindako lanarekin; «berez, baserriarren produktuak saltzeko tokia den hau, Zerkausia, egun batzuetan kalitate handiko jatetxe bihurtzea eta horrenbeste jenderi jaten ematea ez baita erreza».

Balantzea » Zerkausiko bazkariak zerbitzatzeaz arduratzen den enpresako arduradunak festak oso harrera ona izan duela dio.

REBEKA CALVO

Nola joan da aurtengo Txuletaren Festa?

Oraintxe —atzo— bazkaltzen ari diren azken 300 pertsonak falta dira, baina gaur arte, eta jada 1.200 bat pertsona pasa dira hemendik, dena oso ondo joan da. Huts egite bakar bat egon da, kukuletako batean zomorro txiki bat azaldu zela. Izan dugun arazo bakarra izan da eta beraz, %99,9ko asetasuna lortu dugu. Dena oso ondo joan da, oso kontentu gaude.

Aurtengoan otordu bat gehiago eskaini duzue Zerkausian, ostiralekoa, zer dela eta?

Eskaria ikaragarria izan da, jendea asko mugitu da bazkari edo afariak enkargatzeko eta beraz, egun bat gehiago eskaini behar genuela ikusi genuen.

Beti bezala kalitatezko produktuak eskaini dituzue.

Produktu guztiak hemen inguru-koak dira eta kalitate bikaina dute. Aurtengoan txuletei dagokionez bai izan dugula aldaketarik. Aurreko urteetan txuleta guztiak Tolosako hornitzaile bakarrari hartzen genizkion eta aurtengoan pixka bat zabaldu eta Tolosako beste bi biltegi-jabeekin ere egin dugu lan. Hirurek haragi benetan bikaina eskaini digute.

Zeintzuk izan dira gehiago, hemen inguruko bezeroak ala jai egun hauetan hona etorritako kanpotarrak?

Hemengo jende asko etorri da, bai-



R. CALVO

na baita kanpokoak ere, Espainia guztikoak; aurreko egunean Badajozeko autobus bat etorri zen, baina Valentziatik, Malagatik, Barzelonatik, Zaragozatik, Madrilatik... ere etorri dira. Frantziarrak ere izan ditugu. Jende asko bildu gara hemen. Hauek guztiak lekua aldeztu aurretik hartua zuten eta asko apropos bazkaltzeko etorri

dira egun hauetan Tolosara, ohore bat da guretzat.

Balantze baikorra egiten duzue, hortaz.

Oso baikorra. Krisi egoerahanetan beldurra ere bagenuen, baina azkenean inoiz baino jende gehiago etorri da, nahiz eta krisia egon eta beraz, gauzak txukun egiten ditugula ondorioztatzen dugu.

I Inkesta

1. Nondik zatoz? 2. Nola izan zenuen Txuletaren Festaren berri? 3. Zer iruditu zaizue otordua?



«Beste txuleta bat jarriko nuke, gosez geratu naiz»

Ignacio Caballero

1. Anoaetik gatoz.
2. Komunikabideengatik izan genuen honen berri. Zerkausian jaten dugun lehen aldian da, baina aurreko urteetan ere izan gara, Usabal. Ez dauka zerikusirik hemen jan edo beste jatetxe batean, han urtean zehar ere jan ahal duzu.
3. Zerkausia oso ondo dago, kalitatea ere ona izan da, baina nik beste txuleta bat eskertuko nuke, gosez geratu naiz.



«Zerbitzua oso ona izan da eta giro ederra izan dugu»

Celia Salazar

1. Donostiatik gatoz, hiru lagun, eta azken momentuan lortu dugu txartela, zorte handia izan dugu.
2. Orain dela egun batzuk ikusi nuen egunkarian eta animatu egin gara. Etoritzen garen lehen urtea da eta behar bada, errepikatuko dugu.
2. Dena oso goxoa zegoen eta oso gustura egon gara, zerbitzua ona izan da eta giro ederra izan dugu. Oso ondo antolatu dute guztia.



Atzokoa Txuletaren Festaren azken eguna izan arren jende asko bildu zen Zerkausian Tolosako erretegiatiko sukaldarien jakiak dastatzeko. R. CALVO



Sven Vanthourenhout-ek irabazi zuen Asteasuko proba. Bigarren Sven Nys gelditu zen eta hirugarren Klaas Vantormout. A. IMAZ

Vanthourenhout-ek txapela kendu dio esprintean Sven Nys-i

Asteasu » XI. Nazioarteko Ziklo-Kros proba azken metroan erabaki zen atzo. Ikusle ugari elkartu zen, txirrindulari onenak ikusteko asmoz.

ASIER IMAZ

Sven Vanthourenhout-ek irabazi zuen atzo Asteasuko XI. Nazioarteko Ziklo-Kros proba. Izar nagusia, Sven Nys, bigarren postuan gelditu zen, irabazlearen denbora

berean. Hirugarren postuan Klaas Vantormout sailkatu zen.

Proba arrakastatsua suertatu zen. Alde batetik jende ugari joan zelako Asteasura eta bestetik txirrindulariek ikuskizun aparta es-

kaini zutelako: «orain arte ikusi dugun karrerarik bikainena».

Eguraldi ona, lokatz gutxi

Ziklo-Krosean lokatzaren presentziak proba asko gogortzen du. Atzo Asteasun ez zen horrelakorik gertatu. Hala eta guztiz ere, azkartasunak, parekotasunak eta teknikak ikuskizunarekin bat egin zuten.

2.610 metroko ibilbideari 10

itzuli eman zizkieten txirrindulariek. Itzuli bakoitza 6 minututan osatzen zuten multzo buruan joan ziren lau ziklo krosariak. Izan ere, karrera hasi orduko laukote bat sortu zen. Bertan aurkitzen ziren Nys eta Vanthourenhout.

Sven Nys behin baino gehiagotan saiatu zen ihes egiten, baina ikusleen berotasuna ez zen nahikoa izan eta laukoteak bat eginik jarraitu zuen.

» SAILKAPENA

Elite Mutiak

- 1- Sven Vanthourenhout
- 2- Sven Nys
- 3- Klaas Vantormout

Elite Neskak

- 1- Merce Pacios
- 2- Olatz Odriozola
- 3- Amaia Martioda

23 urte azpikoetan

- 1- Daniel Ruiz

Junior Mutiak

- 1- Jon Ander Insausti
- 2- Oier Iraolagoitia
- 3- Ander Basilio

Junio Neskak

- 1- Irene Usabiaga
- 2- Zaloe Trevilla
- 3- Maite Murgia

Kadete Mutiak

- 1- Jaime Campo
- 2- Peio Olaberria
- 3- Raul Bosch

Kadete Neskak

- 1- Eider Merino
- 2- Lierni Lekuona
- 3- Maitane Perez

Azken itzuliaren azken bihurgunean, Nysek abiadura galdu zuen baretetik sartzean. Vanthourenhout-ek aukera ez zuen alferrik galdu eta aurrea hartu zuen. Belgikako izar beteranoa saiatu baldin bazen ere, Vanthourenhout-ek jaso zituen eskuak helmugan.

Ibilbide guztian zehar bezala, sari banaketa ekitaldian ere jende ugari elkartu zen, txirrindulariek ere eskertu zuten babes hau.

sartu behar izan du, asko moteldu da eta gero ez du nahiko indar eduki besteari aurre hartzeko. Baina nire ustez horrek berak ere ikusmin handia eman dio probari.

Asteasurentzat izugarria da hau.

Nire ustez azken 3 urteetan gauza handiak lortu ditugu: Sven Nys, historiako ziklo kros laririk onena, hemen izatea; iaz Bart Wellens etorri izana, bi aldiz munduko txapelduna izandakoa, eta aurten berriro Nys eta Vanthourenhout protagonista izatea. Jendea ez da benetan konturatzen herri txiki batek nolako esfortzua egin behar izaten duen hori lortzeko.

«Orain arteko karrerarik bikainena»

XABIER USABIAGA » Esataria

Etxean aritu da lanean Xabier Usabiaga. Euskal Telebistak proba zuzenean eman du eta Usabiaga izan da esatari lanetan ibili dena.

Gozatzeko moduko karrera ikusi dugu gaur. Zer kontatu duzu telebistan?

Nire ustez orain arte ikusi dugun karrerarik bikainena izan da; parekatua izan delako, ikusgarria; bu-

ruan ibili diren lau ziklistek aukera antzekoak izan dituztelako; oso estrategikoa izan delako... Kontuan hartu behar da barruti oso azkarra eta teknikoa zela. Horrelako ibilbideetan diferentziak egitea zaila da. Orduan, erasoka aritu dira baina ikusi da diferentzia egitea ia ezinezkoa zela. Azkenean, esprint batean amaitu da. Vanthourenhout

eta Sven Nys-en arteko lehia izatea benetan ikusgarria da. Normalean ziklo krosean diferentziak handiak izaten dira eta lasterketa nahiko saldua edo ustela izaten da lehendabiziko itzulietatik. Baina parekotasuna dagoenean, nik uste dut ikusgarritasuna saritzen dela, eta gaurko karrera horren adibide garbia izan da.

Sven Nys zen favoritoa. Esprintean erabakitzeak kalte egin dio.

Kontua da ziklo krosean talde lan askorik ez dela izaten, baina gaur, laukote horretan talde bereko bi zeuden. Nire ustez Klaas Vantormout-ek halako mesedetxo bat egin dio bere taldekideari, Vanthourenhout-i. Azken bihurgunean berriz, Sven Nysek oso barutik



A. IMAZ



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Zuzenketa. Atzoko egunkarian Olaizola I. ak Beginori irabazi ziola azaltzen zen. Gaizki zegoen. Beginok irabazi zuen partida 22-17.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Okindegi baterako.** Tolosako kafetegi-okindegi batean pertsona bat behar da arratsaldean lan egiteko. 25 urtetik gorakoa izatea eskatzen dugu. 661 46 31 93.



Lehen saria, Carlos Mediavillak eskuratu zuen *Hosto gainean* argazkiarekin eta bigarrena Andoni Barandiaran izan zen *Mugimendua* argazkiarekin. AIZKARDI

Aizkardi Mendi Astearekin «oso pozik» antolatzaileak

Villabona » Ekintza guztietan jende asko ibili da. II. Argazki Rallyko sariak ere Mendi Astearen banatu zituzten.

ENERITZ MAIZ

Villabonako Aizkardi Mendi Elkarteak, 26. Mendi Astea ospatu berri du. Astebetean, ekintza sorta izan zuten mendiaren inguruan gozatzeko. Bestalde, egun batzuk lehenago egin zuten II. Argazki Rallyko argazkiak ikusteko aukera ere izan zen.

Aizkardi Mendi Elkarteak antolatzaileak, XXVI. Mendi Asteari dagokionean, antolatutako ekintza guztiek jendearengandik izan duten arrakasta ikusita balorazio «oso baikorra» egin dute.

Asteko egunetan, emandako proiektio ezberdinei eta igandean egindako mendi irteerari, mendizaleek «oso erantzun ona» eman zitoten.

Bestetik, II. Argazki Rallyan 25 lagunek parte hartu zuten. Ostira-lean egin zuten sari banaketa eta lehen saria, Carlos Mediavillak eskuratu zuen *Hosto gainean* argazkiarekin. Bigarren sailkatua, Andoni Barandiaran izan zen *Mugimendua* deituriko argazkiarekin eta hirugarren saria, Celia Raposoren *Natura Hilda* argazkiarekin. Publikoren saria berriz, Carlos Mediavillaren *Putz egin!* argazkiak jaso zuen.

2010eko karnetak

Urtea bukatzerako doala eta mendizale federatuen txartelak berriro beharra daude. Aizkardi Mendi Elkarteak 2010eko federatuen txartel berriak egiteko aukera eskaintzen du elkartearen bertan.

Bihar, abenduaren 15ean, 17an, 22an eta 29an, 20:00etatik 22:00ak bitarte eta urtariletik aurrera, ostegunetan 20:00etatik 22:00etara, Aizkardiaren bulego berria dagoen Larrea auzoko, 18 B zenbakian egin ahal izango dira.



Hirugarren saritua, Celia Raposoren *Natura Hilda* izan zen. AIZKARDI



Publikoaren saria Mediavillaren *Putz egin!* argazkiak jaso zuen. AIZKARDI

Laburrak

Antton Zabala eskalatzailea gaur, Oargin

TOLOSA » Oargi Mendi elkartearen Mendi Hamabostaldiaren barruan, Antton Zabala eskalatzailearen emanaldia izango da gaur ikusgai, 19:00etatik aurrera, Oargi elkartearen egoitzan. Kirol eskalada buruz hitz egingo du Antton Zabala 21 urteko hernaniarrak. Txapelketa ugaritan parte hartu du, eta bere esperientziaren berri emango du.

Laskorain lehen postuan, azken garaipenarengatik

TOLOSA » Laskorain areto futbol taldeak sailkapeneko lehen postua lortu du azken garaipenari esker. Ceramics Nogales taldearen aurka izan zuen norgehiagoka ostira-lean, Usabal kiroldegian, eta 5-4 irabazi zuten horitxoek.

Euskarazko Zine Zikloa igandetik aurrera

TOLOSA » Tolosako Kultura batzordeak, Euskadiko Filmategia eta Eusko Jaurilaritzaren laguntzarekin Euskarazko Zine Zikloa antolatu du. Haurrentzako 8 film eta helduentzako bat ikusi ahalgo dira. Sarrerak 3 euro balio du, eta guztiak ikusteko bonuak 5 euro.

Pello Zelarain Donostian izan da ama zenari agur esateko

Villabona » Donostiako Errekaldeko beilatokira eraman zuten atzo Alicanteko Villena espetxetik.

ERREDAKZIOA

Pello Zelarain euskal preso billa-bonatarra Donostiako Errekaldeko beilatokira eraman zuten atzo bere ama zenari, Mikaela Oartzabali, azken agurra emateko. Senideei hots egin zien, hain justu, presoak Donostian zegoela esateko.

Zelarain 1998an atxilotu zuten eta Villenako espetxean dago.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

GipuzkoaKultura

"GipuzkoaKultura" telebista saioak, gure inguruan daukagun kultura ekarriko digu etxera, bizirik dagoena eta batez ere, gertuko eta egunerokoa."

"El programa televisivo "GipuzkoaKultura" nos acercará a nuestra cultura, una cultura viva y, ante todo, cercana y cotidiana."

"L'émission de télévision - GipuzkoaKultura - nous permettra d'approcher notre culture, une culture vivante mais surtout proche et quotidienne."

Gipuzkoa2.0
KULTURA ETIA BUKARRA
DEPARTAMENTUA
WWW.GIPUZKOAKULTURA.NET

"Eskal kulturaren erabileraz guztion ohitura izatea helburu duen bide orria."

"La hoja de ruta que quiere convertir en costumbre cotidiana el uso de la cultura vasca."

"La feuille de route qui veut changer en coutume quotidienne l'usage de la culture basque."



Golena telebista

Osteaguna, 22:15etan.

Goierrri telebista

Osteaguna, 22:30etan.

28 kanala

Osteaguna, 22:00etan.

Erla telebista

Osteaguna, 21:00etan.

zure, gure, denon TB saioa.

www.gipuzkoakultura.net

www.tokiko.tv

E Elkarrizketa

PATXI ZABALETA | Idazlea



JAGOBA MANTEROLA/ARGAZKI PRESS

«Iradozikunak egitea da olerkariaren zeregin nagusia»

Leitza » 35 urteren ondoren, olerki bilduma berri bat argitaratu du Patxi Zabaleta leitzarrak. Liburuaren izenburua 'Bizi!' da.

ASIER IMAZ

Lanbidez abokatua eta politikaria da Patxi Zabaleta (Leitza, 1947). Baina zuzenbidean eta filosofian lizentziatua ere bada. 1986. urtean euskaltzain izendatu zuten. Iruñean bizi den leitzarra ezkonduko dago eta bi alaba ditu. Horietakoa bat, Miren Zabaleta, espetsxean dago Batasuneko kide izateagatik. **Zergatik argitaratu duzu liburu?** Duela 37 eta 35 urte ere argitaratu nituen beste olerki liburu batzuk.

'Zorion baten zainak' eta 'Ezten gorriak'.

Bai. Beti idatzi izandu dut olerkia noizbehinka: abeslariaren batek edo ospakizunen batetarako eskatu didatelako eta beste batzuetan, gertakizunen batek eraginda edo hunkimendua sortuta. Azken hamarkada hauetan nobelak, saiakerak eta antzerkia ere argitaratu ditut.

Olerki mordoak bat bilduta banituenez, eta besteren batzuk egiteko ideiak ezarrita, bilduma moduan argitaratzea pentsatu nuen. Ipuinak eta saiakera batzuk ere bilduta badauzkat eta egunen batean hori ere argitaratzeko asmoa badut.

'Bizi!' du izenburua. Olerkari 'zaharra' oraindik bizi dela azaltzeko agian?

[Kar kar]. Ez, ez... Hori liburuaren mezu bat da, eta mezu hori bereziki lehendabiziko olerkian azaltzen da; *Aberrigatik bizi, iraultzagatik bizi* izena du. Ez du beste esanahi pertsonalik, mezu poetiko baten ispilu izan nahi luke.

Baina nola bizi?

Olerkia bera irakurriz eman beharko nizuke erantzuna. Zalan-tzarik gabe olerki guztietan ez da egiten argudio oso bat, nahiz eta nire olerkiak, agian batzuen gustu-

rako gehiegi, arrazoimenduz kutsatuak dauden. Orduan, olerkietan beti uzten zaio, bai irakurleari, bai edozein moduz ere olerki horren edukiera iristen denari, berak osatzeko aukera bat. Iradozikunak egitea da olerkiaren zeregin nagusia. Liburuaren epilogoan hausnarketa bat egiten dut aitzin solasean bezala, zein den olerkaritzaren eta olerkiaren zeregina, eta iradozikunak egitea da, pertsonari iradozikunak egitea eta euskal literaturaren barruan, euskal olerkaritzak duen zeregina edo bere hobia edo bere nitxo. Euskal kulturaren zorionez, adierazpen izugarri indartsu bat badaukagu: bertolaritza. Orduan, beste kulturetan nahitaezkoa da literatura, eta euskaldunaren ere bai. Beste literaturaren nahitaezkoa da olerkaritza eta euskal literaturaren ere bai, baina olerkaritzak beste literaturatan ez bezala, gurean bere zeregina tartekatuta beharra dauka bertolaritzarekin. Eta horregatik erantzun guztiak ez daude olerkietan, baina bai iradozikunak.

Iradozikunetan bakarrik gelditzea, ez al da ausardia falta?

Ez. Bakoitzak ateratzen dituen ondorioak, idazle batek ateratzen dituenak, ez dira nahita nahi ez irakurleak hartzen edo bere egiten dituenak. Irakurleak ez ditu bakarrik ikusten edo hausnartzen idazleak egiten dituenak, baizik berak ondoren, erantsi edo kontrakotasuna azaltzen du. Egunkari bat irakurtzean gertatzen den modura. Egunkari bat ideologia baten edo jarrera batzuen adierazpidea da askotan. Baina egunkari hori irakurtzen dutenek, askotan, beste nolabaiteko ideologiak edo jarre-ak dituzte, eta hala ere egunkari hori berririo irakurtzen dute. Berrez, iradozikunak egitea ausarta da, eta ez da ausardia falta, baizik eta ikuspegi zehatz bat, idazketak eta bereziki olerkia idazteak esan nahi dutenarekiko.

Agian kontraesana azaleratzea?

Ez. Olerkiak ez du bukatu behar beti; agian sakontasun bat eman eta gero irakurleari bere bidea egiten utzi. Liburuaren epilogoan horrela diot: «Beti idazleak behar du apaltasun bat, idazlearen xedea iradozikunak egitea da, ahal izanez gero balizko irakurleari zere-

bait pentsaraztea. Idaztea, maitasuna bezala, norberak bere baitan bukatutzat eman ez dezakeen harremana da: beste behar du». Eta hemen nik erabiltzen dudana hitz bat sartzen dut: «Bestetasunari so garatzen den ariketa da».

Bestetasunari?

Badago poema bat, *Bestetasuna* izena duena, eta ez da hitz hori erabiltzen dudana lehendabiziko aldian. Nere nobela batean ere sartua dut eta baita garai batean egin nuen filosofia tesi batean ere.

Zein da bere esanahia?

Ni delako horren barruan ez dagoena. Alde batetik aurkako da eta beste alde batetik osagarria. Jaki-na, horrekin poema bat egiten asten zarenean, gero gauza zehatzetara joaten zara. Liburuan 81. orrialdean dago eta sarreratxo bat dauka nire olerki guztiek bezala: «Norberak bere nortasuna aitortu eta aldarrikatu ahal izateko, bera ez den beste guztia arrotzu egin behar du lehenik, arrotza aitortu. Norberaren ni delako hori, nia alegia, eta bere izanaren larrutik at dagoen beste gainerako guztia, beste-tasuna, aitortpenaren bi aldeak

dira». Gero olerkia dator. Batzuei agian gustatuko zaie eta beste batzuei zalantzarik gabe ez.

Eta zuri, berdin al zaizu irakurleari gustatu ala ez?

Ez, ez. Hori berdin zaidala ezin dut aitortu, ez. Idazleak beti nahi luke irakurleari gustatzea idazten duena, hori zalantzarik gabe.

Baina idazteko garaian pentsatzen al duzu irakurlearengan?

Idaztean beti besteengan pentsatuz egiten dugu, bestela ez genuke ez argitaratuko eta agian ezta idatziko ere. Gure baitarako bururazten zaizkigunak esango genuzke eta hor geldituko ginateke.

Baina horrek arazo bat ekar dezake berarekin: ni hori edo artistak berezkoa duen indibidualtasun edo argi irakurle mugatzeko arriskua.

Baina norbaitek zer bait adierazi

«Inork ez du bere buruarekiko soilik idazten, ez eta hitz egiten ere»

«Historia askatasunaren alde joaten da. Gertatzen dena da, zuzen ez dela joaten»

«Liburu argitaratzean hor geratzen da, seme edo alaba bat hazten denean bezala»

nahi duenean, bestearengan pentsatzen du; eta idaztea adieraztea da. Hor ez dago inolako dudarik, hitz egitea ere adieraztea den bezala. Ez du inork inoiz bere buruarekiko soilik idazten, eta ezta ere bere buruarekiko soilik hitz egiten; nahiz eta askotan bere kasa aritzen den hizketan, ezta? Baina aritzen da beste norbaitekin ari balitz bezala. Horretan ez dago inolako zalantzarik. Orduan, bestetasuna nik uste dut maila filosofikoko pentsararen mailan dagoen kontzeptua dela, nahiz eta erdaraz esateko ez dagoen hitz errazik. Euskaraz bai, euskaraz bestetasuna ongi errotutako hitza da. Erdaraz, nik asmatutako itzulpenean, *alteridad* bezala itzuli dut. Nire ustez euskarak adierazpen bereziak ditu eta horiek ere beste hizkuntzetan saldu egin behar ditugu.

'Aberria ala hil', 'iraultza ala hil' horretatik 'Aberriagatik bizi, iraultzagatik bizi' horretara salto egin duzu. Aldaketa, eboluzioa, ... zure hiztegiaren sarri aipatzen diren hitzak dira.

Euskal literaturan, bere apaltasunean eta bere ttipitasunean, aldaketa sakonak egin dira. Abangoardia kutsu handia duten idazleak eta olerkariak baditugu, baita Nafarroan ere. Lehen aipatu dugun *Zorion baten zainak* liburua, literatura arloan frankismoaren ondoren, euskaraz argitaratutako lehen liburua izandu zen Nafarroan. Eta orain berriz, Nafarroan bada talde

garrantzitsu bat literatura euskaraz egiten duena. Ekarpen aberatsak sortzen ari dira han-hemenka. Hori da idazle gazteek batez ere dakartena. Beste batzuek ordea, gure lekukotasuna ematen ere jakin behar dugu. Orain 20 urte dituzten batzuek bezalakoak ez gara, eta ez dugu gainera izan nahi: bakoitzak du bere garaia eta bere ingurua. Bakoitzak egin behar du bere erakarpena. Esate baterako, eta kuttuntasun handiz aipatuko dut, nire alaba Mirenek olerkiak idazten dituela. Gainera, oso olerki ederrak egiten ditu eta baditu morderak bat eginak. Liburu hau argitaratzeko asmoa gauzatu zenean, aita alaben arteko argitalpen bat egin nahi al zuen aipatu nion. Baina berak ez zuen nahi izandu. Bakoitzak bere bidea egin nahi izaten du, eta hori ere ez da errespetatzeko modukoa bakarrik, baita aintzat hartzekoa ere. Berak ez du nik bezala idazten; baina horrek ez du esan nahi ez duela hobeki idazten. Bestelako modu batean idazten duela esan nahi du.

Kezkak, herria, poesia bera...

Aberria, Nafarroa, gizartea, pobrezia, gatazka... Gaiak betikoak ditut nik, eta horietatik oso zaila zait ateratzea. Agian liburu honetan, olerkiak betikoak izandu dituen gai batzuei buruzko aipamena ere bada: go: maitasuna, adiskidetasuna, zoriona eta pentsamenduaren arloko garapen batzuk; pentsamendua esaten dudanean filosofiar buruz ari naiz. Gero, lekukotasuna ematen duten olerki batzuek ere badaude; baita ezagutu ditudan pertsona batzuekiko edo bizitu ditudan garai batzuetako gaietan, hunkimendua sortuta egindako edo niri eragindako olerki batzuk. Gaiak oso anitzak dira.

Bilduma honetan okinak bere buruarentzat egiten du ogia ala gizartearentzat?

Zalantzarik gabe hamarretik bederatzik eta erdi, inguruko gizarteari begira egindakoa da. Nire kezkak baina beti kanpora begira, nolabait esateko, nire baitan baino askoz ere gehiago gizarteari begira. Liburuaren aurkezpenean bi aitzindari aipatu nituen, haien zordun garelako aitortuz. Alde batetik Gabriel Aresti eta bestetik Salbatore Mitxelena. Batek gizarteko lokatzetan sartarazten gaitu, *Harri eta herri* eta bilduma haiekin guztiakin; *Harrizko herri hau* eta hori guztia. Besteak berriz, Salbatore Mitxelena, aberriaren eta horretatik sortzen diren *herrimina*. Berak erabilitako kontzeptua da, nik ere berarengana dela aitortuz erabiltzen dudana noiz edo noiz. Hori guztia da gure ikuspegia eta zordun garen, edo zordun naizen ikuspegi horretan, askoz ere gehiago egiten dut gizarteari begira, herriari begira, besteei begira... niri begira baino. Ez naiz *intimista* nolabait esateko, Espainiako 27ko olerkari gatzaldia erabiliz. **Aterako al gara lokatz horretatik?**

Zalantzarik gabe. Historia askatasunaren alde joaten da, gertatzen dena da ez dela zuzen joaten. Euskal Herria duela 40 urte baino herriago da orain. Liburu honek adibidez, jarraipena ematen dio atal batean orain dela 37 urteko liburu bati. Han bazegoen, orain 40 urte dituen olerki bat, eta Euskal Herria orain askoz herriagoa da. Horrek ez du esan nahi oraindik behar bezain herria garenik, ezta askoz gutxiagorik ere. Horregatik segitu behar dugu aurrera. *Zorion baten zainak* atera zenean, prozesu bat ireki zidaten orduan. Ordena Publikoaren Epaitegia delakoan ibili behar izan nuen, ahal nuen bezala nire burua defendatzen. Gaur egun ordea, Durangoko Azokan Nafarroako idazle mordoa egon da, beren idazlanak eta liburuak aurkezten, batzuk oso onak gainera, aintzat hartzekoak. Zalantzarik gabe aurrera goaz, gertatzen dena da oraindik luzea dela falta zaigun bidea.

Baina lagun batek dio bezala: La Polla Records-en letrik oraindik egunerokotasun handia dute.

Ez dakit ba zure lagun horrek arrazoiak ote duen. [Kar kar]. Horietan ere aldatetako badaudela iruditzen zait. Gertatzen dena da, aipatu duzun adibidea hartuta, beti izan dena delako protestarako toki bat, arrazoi

bat. Baden bezala beti autokritikarako betekizuna, obligazioa eta baden bezala beti okerrak zuzentzeko nahita nahi ezkotasuna. La Polla Records-ek ere orain dela 20 urte kantatzen zituenetatik, oraingoetara, aldaketa egin izan du, eta berdin Barrikadak eta beste batzuk ere. Aldaketa horiek guztiak ez dut esan nahi zalantzarik gabe oso adierazgarriak direnik, baina oro har ikusita hor daude.

Artista aldatzea gauza bat da, berak jakingo du zergatik aldatu den. Baina sarri bere lana bere aingura izan ohi da.

Hori horrela da. Idazle batek egiten duen lana bere burutik at ikusi behar du, kanpoko zer bait bezala. Izandu dira argitaratutako liburuak beti zuzentzen saiatu direnak Paul Claudel bezala. Baina liburu bat argitaratzen duzunean hor gelditzen da, seme edo alaba bat hazten denean bezala, bere bidea egiten du. Hori ezin da aldatu. Idazle batek egiten duena hor dago eta gero gizarteak eta etorkizunak esango dute zer iruditzen zaien edo zer ekarpen izandu den.

Idatzia irakurtzean sufritzen al duzu?

Bai. [Kar kar]. Eta batzuetan damutu egiten naiz idatzitakoa idatzi izanaz, eta beste batzuetan aztoratu, lotsatu... Eta idazterakoan

gehiago, asko. Olerki bakoitzak sufriarazten du.

Idazterakoan biluzten al zara?

Idazlea beti biluzten da, bai. Larrugarrian idazten da beti, ez dago inolako zalantzarik. Batzuetan arropa izaten da; eleberrietan, no-beletan eta horrela. Beste pertsona batzuk jartzen dituzula zuk adierazi nahi duzuna esan dezaten, egin dezaten edo horrela joka dezaten. Baita kontraktotasuna adieraztearen bitartez. Baina olerkia egiten denean, beti idazle izan nahi duenak egia idazten du eta biluztuta, larrugarrian idazten du.

Politikari izateak merkatua mugatzen al du?

Agian bai, baina ala egiten badit ere, nik zer eginen diot bada. Norbaitek esan izandu dit, besteak beste Miren nire alabak, politikan aktiboa dagoenean, ez lukeela literaturarik argitaratu behar. Ikuspegi bat da. Izandu dira klase guztiak ere duak eta adibideak. Izandu dira, politikan murgilduta ibili eta literaturako obrak argitaratu dituztenak. Batzuetan arrakasta izan dute eta beste batzuetan ez. Adibideak eta ereduak denetik daude historian. Baina bakoitzak bere bidea egiten du eta nik, momentu batean eleberriak argitaratu nituen bezala, bilduma hau argitaratzea pentsatu dut orain.



JAGOBA MANTEROLA/ARGAZKI PRESS

» DI-DA BATEAN

- **Liburu txar bat?** Txantxa eginez, Del Burgoren azkenekoa.
- **Liburu on bat?** Literatura mailan, Arestirenak.
- **Idazle bat?** Ezezagun xamarra delako, Salbatore Mitxelena.
- **Olerkari bat?** Euskal eta gaurko olerkariaren artean, Harkaitz Cano.
- **Artista bat?** Beti artista izandu delako eta orojalea delako, Xabier Lete.
- **Musikari bat?** Benito Lertxundi.
- **Bertsolari bat?** Andoni Egaña.
- **Igandeko txapeliduna?** Emakumea izatea gustatuko litzaidake.
- **Pelikula bat?** Arrosaren izenean.

- Gaztelerez *En el nombre de la rosa* izena du.
- **Politikari bat?** Aintzane Ezenarro.
- **Enpresari bat?** Juanito Zelaia.
- **Langile bat?** Alboan ditudanak.
- **Webgune bat?** www.berria.info.
- **Data bat?** Euskaldunok errebindikatu beharko genukeena: urriak 25. Euskal Herriaren lurraldetasunaren eta askatasunaren data izan beharko lukeena.
- **Urte bat?** Aurtengoa. Datorren urtean 2010 esango dugu.
- **Jantzi bat?** Bakeroak.
- **Malko bat?** Hiru malko huts izena

- duen eskultura bat dut nire Leitzaiko etxean, Josu Goyak egina. Malko horiek hutsak daude, horiek dira garrantzenak.
- **Zigor bat?** Ostrazismoa. Erromatarren garaiko zigorra da; desherrua baina ez nolana hikoia.
- **Ametas bat?** Askatasunarena beti.
- **Hutsune bat?** Askatasunarena baita ere.
- **Filosofu bat?** Parmenides eta Heraclito nahasita.
- **Abokatu bat?** Nirekin lan egiten duenak, nirekin sufritzen dutenarengatik.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordeak: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaldia: 687 410 022. anoetaldia@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Aduna.** Aireko akrobazia ikastaroa 5 eta 14 urte artekoentzat Maider Yabar irakaslearekin hilaren 28tik 30era, 11:00etatik 13:00etara, 50 eurotan. Informazioa eta izen-ematea, 667 22 32 36 telefono zenbakian edo maidertxo@hotmail.com helbidean. Antolatzailea: Asvinenea.

■ **Berastegi.** Elkartasun Azoka hilaren 12tik 18ra: arropa, jostailuak, liburuak, altzariak... jasoko dituzte Muñagorri eskolan azokan salgai jartzeko.

■ **Tolosa.** Emakumeak eta migrazioak komiki lehiaketa martxan da. Lanak hilaren 30erako entregatu behar dira Tolosaldea Garatzeko Immigrazio Sailean (943 65 45 01).

■ **Tolosa.** Abenduaren 13an BEC-era Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera joateko autobusa antolatuko du Galtzaundik. Izen-ematea, egoitzan 9 eurotan (ez bazkideek, 12).

■ **Villabona.** I. Euskarazko Bakarriketa Lehiaketa antolatuko da Udalak: gaia libre a izango da, 10-15 minutu arteko iraupena izan beharko du. Izen-ematea, udaletxean. Bakarriketa guztiak urtarillaren 15etik otsailaren 19a bitartean aurkeztu beharko dira Gurea zine aretoan.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Ignacio Garciaen margolanak ikusgai Itaie tabernan.

■ **Tolosa.** Tolosara angularra Iñaki Elolaren argazki erakusketa, Beti Alai tabernan.

Mendia

■ **Tolosa.** Antton Zabalaren Eskalada proiektioa Oargi mendi elkar-teen 19:00etan, Mendi Hamabostaldiaren egitarauan. Bestalde, material berri eta 2. eskuko mendiko merkatu txikia dago Oargi mendi elkar-teen. Astelehenetik-Ostiralera 18:00etatik 21:00ak arte, asteburu eta jai egunetan 10:00etatik 13:00ak arte eta 16:00etatik 21:00etara.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, *Millemium* 2 filma, 20:30ean. Ikuslearen eguna.

GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Ur eta lur. **09:00.** Alex eta Alexis.
09:30. Tolosaldean Gaur. **10:00.** Kalekan-
toi. **10:30.** Ilunpean. **11:30.** Tolosaldean
Gaur. **12:00.** Klipak. **12:30.** Zahar berri.
13:00. Muka-Muka. **13:30.** Tolosaldean
Gaur. **14:00.** Kalekantoi. **14:30.** Ilunpean.
15:00. Erlaklip. **15:30.** Tolosaldean Gaur.
16:00. Klipak. **16:30.** Zahar berri. **17:00.**
Muka-Muka. **17:30.** Tolosaldean Gaur.
18:00. Gipuzkoa kultura. **18:30.** On ein!
19:00. Mendialdean bizi. **19:30.** Tolosaldean
Gaur. **20:00.** Artegitza. (*16:30etik
20:00etarako blokea 4 orduro).

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkari-
en adierazitako esan
eta iritzien erantzunik.



Txistularien doinuekin kantuan

TOLOSA • Santa Mariako Musika kaperak eta Tolosako Orfeoia Sortzez Garbiaren egunaren harira, Santa Maria parrokiaren Eduardo Mokoroaren *San Juan Bautista Meza* eta Felipe Gorritiren *Magnificat* interpreta-

tu zuten atzo eguerdian. Ondoren, Udal Txistulari Bandak kontzertua eskainiko zuen udaletxeko arkupeetan. Jende ugari gerturatu zen bai ikustera, bai eta abestuz parte hartzera ere. I. TERRADILLOS

A Agurrak



Urte askoan sinpatiko!

Markel Martinez Sagastibeltza (Leitza). Muxu haundi bat lehen urtebetetzean lehengusu, osaba-izeba eta aitona-amonen partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak



HITZAK bi sarrera pare ditu

Aitarene bidean

antzerki saiorako

Abenduak 11
Ostirala • 20:30ean
Tolosako TOPiCen



HITZAK sarrera bat du

Euskal Herriko
Bertsolari Txapelketaren
FINALERAKO



Abenduak 13 • Igandea
BEC-en

HITZAK sarrera pare bat du

Tolosako Orfeoia

Gabonetako kontzertua

Abenduak 23
Asteazkena • 20:30ean
Leidor aretoan

